

Belauntzako Haur Txoko berria

BELAUNTZA. DV.

Gaur arratsaldeko 18:30etik 20:00ak bitartean Belauntzako Kultur Etxean haurrentzako txoko berri baten inaugurazio ekitaldia ospatuko da.

Belauntzan egon zen eskolako guraso elkartearen laguntzaz, Kultur Etxean haurrentzako jarleku erosoak, altzariak, jokoak, musika... jarri dira, eta hauei esker haurrek txoko atsegin bat edukiko dute Kultur Etxean hemendik aurrera.

Txoko honetan liburuak haurren adinaren arabera sailkatuko dira eta beraien eskura kokatuak egongo dira. Era berean, Haur Txokoa jolastu eta eskolako lanak egiteko txokoa ere izango da: ordenagailu bat egongo da interneten aritzeko eta idazlanak egiteko. Horrez gain, Tolosaldeko beste liburutegi bateko txartela badute, Belauntzako liburuak etxera eraman ahal izango dituzte; txartelik ez dutenek, doan eskuratzeko aukera edukiko dute.

Gurasoentzako guneak

Gurasoentzako zerbitzuak ere badaude gune berri honetan: liburutegia, KZgunea, aldizkari eta egunkariak irakurtzeko aukera...

Gaur bertan, Haur Txokoaren lehen egunean, eskulanak egingo dituzte: txapa tailerra, txotxongiloak, marrazkiak..., eta gero merienda txiki bat banatuko da. Hori guztia gaur arratsaldeko 18:30etik aurrera.